



Gida 2

Ekitaldi irisgarriak antolatzeko gomendioak

Gida 2

Ekitaldi irisgarriak antolatzeko gomendioak

Lehen edizioa: 2025ko otsaila



Gidaren egilea:

Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia garatzeko esparruan.




ETXEBIZITZA ETA
HIRI AGENDA SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
AGENDA URBANA

Koordinazio teknikoa:

Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritza
IKEI & Ilunion Accesibilidad ABEE






Dokumentu hau interaktiboa da


Ekitaldi irisgarriak antolatzeko gomendioak

1.	Sarrera	4
2.	Gida nori zuzentzen zaio	6
3.	Arau-esparrua	7
4.	Ekitaldira datozenentzako eta parte-hartzaileentzako oztopoak	9
5.	Interakzio-mapa eta irisgarritasun-gomendioak	11
	5.1. Ekitaldiaren antolaketa eta diseinua	11
	5.2. Ingurunea	21
	5.3. Nola sartu	22
	5.4. Barneko ibilbideak / Mugikortasuna eraikinean zehar	23
	5.5. Ekitaldiaren garapena	27
6.	Glosarioa	36
7.	Ekitaldi irisgarriak egiteko dekalogo	38
8.	Ekitaldi irisgarri bat egiteko adierazleen taula	40
9.	Esteka interesgarriak	44



Gida hau informazio- eta orientazio-argitalpen gisa prestatu da, eta **ekitaldi irisgarriak antolatzeke eta garatzeko** orduan kontu beharreko **jarraibideak eta gomendioak** eskaintzen ditu.

Ekitaldi gisa hitzaldiak, konferentziak, jardunaldiak edo antzeko bestelako jarduerak barne hartzen dira. Horietan publiko orokor edo espezifiko bat izaten da, eta parte-hartzaileak eta/edo hizlariak gonbidatzen dira, guztien artean aurrez ezarritako jarduera multzo bat garatzeko.



Ekitaldi batera askotariko pertsonak joaten dira, eta, beraz, funtsezkoa da, antolatzen den lehen unetik, pertsona bakoitzaren beharrei edo eskakizunei arreta jartzea. Lan zaila dirudi, baina gida honen bidez ekitaldiak antolatu eta garatzeko orduan unean-unean kontuan hartu beharreko jarraibideak eskaintzen dira, ekitaldi horiek askoz ere irisgarriagoak izan daitezen.

Hainbat ataletan egituratuta, gida honek ekitaldi jakin bat nola zabaldu, antolatu eta gauzatu jakiteko antolatzaileentzat baliagarri izango diren argibide batzuk jasotzen ditu. Gakoa beti izango da pertsona guztien irisgarritasun-premiei arreta jartzea, eskaintzen diren ingurune eta zerbitzuekin duten elkarreraginean.

Irigarria den ekitaldi bat pertsona guztiei berdintasunean eta modu autonomoan parte hartzeko aukera ematen diena da, desgaitasunen bat izan edo ez, edozein motatakoa dela ere.

Gidaren atal desberdinetan honako gai hauek landuko dira:


- Gida nori zuzentzen zaio.
- Ekitaldira datozenentzako eta parte-hartzaileentzako oztopoak.
- Irigarritasun-gomendioak ekitaldiaren antolaketa- eta garapen-fase bakoitzean.



Aurkibidera itzuli

2


Gida nori zuzentzen zaio



Gida hau jendeari irekitako ekitaldiak antolatzeko ardura duten erakunde, entitate, enpresa eta/edo pertsona guztiei zuzenduta dago.

Gidaren bidez jakin ahal izango dute zer elementu eta baliabide hartu behar dituzten kontuan antolatzen diren ekitaldiak irisgarriak izan daitezen.

 **Aurkibidera itzuli**



Hainbat arau eta lege-testuk azpimarratzen dute beharrezkoa dela pertsona guztiek gizartean parte har dezaten erraztea, ingurune eta zerbitzuetarako sarbidea eta horien erabilera erraztea eta, nola ez, antolatu daitezkeen ekitaldi eta jardueretan parte hartzeko aukera erraztea.

Zehazki, [1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak](#), 51.8 artikuluan honako testu hau jasotzen du:

"Kirolak, kultura-jarduerak, aisialdiko jarduerak eta denbora librekoak, ahal dela, instalazioen irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren arabera gauzatuko dira, herritarren zerbitzura ezarritako baliabide arruntekin. Laguntzen espezifikotasunak eta beharrianak hala eskatzen dutenean bakarrik ezarri ahal izango dira zerbitzu eta jarduera espezifikoak, ordezeko eta osagarri gisa".

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan [Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak](#) honako betebeharrak nabarmentzen ditu:

"Hiri-ingurunearen, gunen publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo muga psikiko zein sentSORIALA, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten".

Honako Errege Dekretuak administrazio publikoen betebeharrei buruz hitz egiten du, ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta erabiltzean diskriminaziorik egon ez dadin. Horren barruan, era publikoan antolatzen diren ekitaldiak ere sartuko lirateke:

[193/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, desgaitasuna duten pertsonen jendearen eskura dauden ondasunak eta zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak arautzen dituena](#), betebeharrak orokorrean buruzko 5. artikuluan:

"Herri-administrazioek zainduko dute desgaitasuna duten pertsonen herritarren eskura dauden ondasunak eta zerbitzuak eskuratzean eta erabiltzean aukera-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko duten eskubidea errespetatzen dela".

Gainera, ekitaldiak egiten diren espazio publikoek eta eraikinek honako eskakizun eta gomendio hauek bete beharko dituzte:


- Lurralde-mailako araudia, [68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.](#)
- Estatu-mailako araudia, [505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, desgaitasuna duten pertsonak espazio publiko urbanizatueta eta eraikinetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarritzko baldintzak onartzen dituena.](#)



Aurkibidera itzuli

4

Ekitaldira datozenentzako eta parte-hartzaileentzako oztopoak



Ekitaldia irisgarria izan dadin, garrantzitsua da jakitea zer oztopo izan ohi dituzten bai parte-hartzaileek bai ekitaldira joaten direnek. Horrela, errazagoa izango da oztopo horiek ezabatzeko lan egitea eta pertsona guztiak ekitaldian berdintasunean sartu eta parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea.



Ekitaldiak antolatzen dituzten erakundeek aintzat hartu behar dute herritarren artean dagoen gizarte-aniztasuna. Haien parte-hartzea eta gizarteratzea erraztu behar dute, eta, horretarako, zerbitzuak eta produktuak eskuratzeko eta, kasu honetan, ekitaldietara joan eta parte hartzeko hainbat aukera eskaini behar dituzte.

Oztopo nabarmenenak:

- **Mugikortasunari buruzkoak**, honako hauen ondorioz:
 - ekitaldiak irisgarriak ez diren inguruneetan egitea.
 - erreserbatutako espaziorik ez izatea (eserlekuak).
 - egokitutako zerbitzurik ez izatea (komun egokituak, erreserbatutako eserlekuak...), ezta dagokion seinaleztapenik ere.
- **Arlo sentsorialari eta komunikazioari buruzkoak**, honako hauek ez izateagatik:
 - informazioa hainbat formatutan ez egotea
 - edo informazioa modu inklusiboagoan eskuratzea ahalbidetzen duten baliabideak ez izatea (braillea, zeinu-hizkuntza, azpigituluak, audio-deskribapena, dokumentu irisgarriak, irakurketa erraza...)
- **Ingurunea eta edukiak ulertzeari buruzkoak**, honako hauen ondorioz:
 - informazio argirik eta egituraturik ez izatea
 - Edukia hizkuntza argian ez egotea
 - prestakuntza eta jarrera enpatikoa duen laguntza-langilerik ez izatea.



Aurkibidera itzuli

5

Interakzio-mapa eta irisgarritasun-gomendioak



Pertsona guztientzat irisgarria izango den ekitaldi bat antolatzen ari dela bermatzeko, fase bakoitza planifikatu behar da, eta fase horiek **interakzio-mapa** osatzen dute, ekitaldi horretara datozen pertsonen eta parte-hartzaileek ekitaldiarekiko izango duten elkarreraginean. Horrela bermatzen da fase horietako bakar batean ere ez dela irisgarritasun-katea hautsiko, eta pertsona bakar batek ere ez duela oztoporik izango ekitaldian parte hartzeko eta huraz gozatzeko.

Interakzio-mapa hau osatzen duten faseak honela laburbil daitezke:

- Ekitaldiaren antolamendua, komunikazioa eta izen-emateak.
- Ekitaldiaren kokalekuaren ingurunea.
- Ekitaldirako sarbideak.
- Informazioa / Eraikineko mugikortasuna / Zerbitzu osagarriak.
- Ekitaldiaren garapena. Ekitaldiko jardueren irisgarritasuna.


5.1. Ekitaldiaren antolaketa eta diseinua



Ekitaldi bat diseinatzeko orduan kontuan izan behar da bertan parte har dezaketen pertsona ugari daudela, eta ahal den neurrian, berariazko egokitzapen edo diseinuen beharrik gabe, beren eskura jarritako zerbitzu guztiek bertan parte hartzeko aukera eman behar dutela.

Diseinuaren lehen fase honetan honako hauek sartzen dira:

- Ekitaldiaren formatua aukeratzea.
- Eskuragarri dauden zabalkunderako kanalak.
- Erregistroak edo izen-emateak egiteko aukeratutako prozesua.
- Ekitaldia egiteko aukeratutako lekua.
- Ekitaldiaren garapena antolatzea.



Ekitaldiaren formatua

Ekitaldi guztiek alderdi amankomun batzuk izango dituzten arren, beharrezkoa da alderdi espezifikoagoei arreta jartzea, parte-hartzaileek ekitaldian aurreikusitako jardueretan nola parte hartuko duten kontuan hartuta.

Hiru formatu nabarmen ditzakegu:



Ekitaldia aurrez aurrekoa bada, hasiera-hasieratik arkitektura-oztoporik gabeko espazio bat aukeratu behar da, eta beharrezko baliabide tekniko edo laguntza-produktu guztiak izan behar dira.



Online ekitaldia bada, garrantzitsua da kontuan izatea herritarren zati batek teknologiak eskuratzeko eta erabiltzeko izan ditzakeen balizko zailtasunak. Horregatik, gomendagarria da saioa garatzeko hautatutako tresna digitalak dituen funtzio nagusien erabilerari buruzko azalpen-baliabideak ematea (saioa nola sartu, txata edo mikrofonoa nola erabili...). Azpigituluak edo zeinu-hizkuntzako interpretearentzako (ZHI) leihoa kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak dira.


Online ekitaldiak egiteko hainbat tresna daude, bakoitza bere berezitasunekin, baita irisgarritasunari buruzkoak ere. Ikus honako azterlana: [Bideokonferentziak egiteko aplikazioak: irisgarritasunari buruzko azterlana.](#)



Ekitaldia hibridoa bada, bai aurrez aurrekoa, bai online bidezkoa, bi alderdiak konbinatu behar dira.

Irisgarritasun-jarraibideak aldizka egiten diren ekitaldietan

Askotan, aldizkako ekitaldiak antolatzen dira, eta aire zabalean ere egin daitezke edo eraikin iragankorretan.



Eraikin horiek karpak, erakusketa-espazioak edo bestelakoak izan daitezke, eta askotariko ezaugarriak izan ditzakete.


"Aldi baterako edozein ekitaldi mota egiteko erabilitako eraikin iragankorrak (kirol-instalazioak, kontzertuak, kultura-ekitaldiak, desfileak, etab.) diseinu egokia bermatuko duten irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bete beharko ditu, edozein erabiltzailek bertan dauden espazioak baldintza berberetan eskuratu eta erabili ahal izan ditzan", ONCE Fundazioak eta CERMIk argitaratutako ["Arkitektura iragankorra eta irisgarritasuna"](#) gidan azaltzen denez. Gida hori kontsultatzea gomendatzen da ekitaldi mota horiei buruzko xehetasun guztiak ezagutzeko.

Kasu horietan, hutsetik abiatu behar da irisgarritasunari dagokionez, ez baitute zerikusirik ekitaldiak egiteko prestatuta dauden gainerako eraikinekin; izan ere, sortuta daudenek gutxieneko irisgarritasun-baldintzak izango dituzte, eta errazagoa izango da oztoporik gabeko antolaketa horri ekitea.

Ekitaldi horretarako bakarrik sortutako eraikuntza batean egindako aldi baterako ekitaldian, honako puntu hauek hartu behar dira kontuan, eta horietako asko aurreko epigrafeetan jorratu dira:

- Ekitaldian parte hartuko duen balizko publikoaren beharrak ezagutzea.
- Ekitaldiaren komunikazio- eta informazio-prozesua irisgarria izatea.
- Ekitaldia kokatuta dagoen ingurunea ahalik eta irisgarriena izaten saiatzea, eta bertara iristeko garraiobide irisgarriak edo mugikortasun urriko pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak izatea.

- Informazio-gunea pertsona batekin jartzea jendeari arreta emateko.



- Egiturak hainbat eremu izatea, ekitaldiko jarduerak burutzen diren gunetara argi eta garbi bideratzeko.
- Seinaleztapena egokia izatea.
- Garrantzitsua da ekitaldian zehar ematen den informazioa irisgarria izatea, behar diren formatu alternatiboetan, eta pertsona guztientzako komunikazio-kanal irisgarriak eskaintzea.
- Pertsona guztientzako atsedeen-guneak izatea.
- Ekitaldirako jarritako zerbitzu osagarri guztiak irisgarriak izatea (komunak, kafetegiak, ostalaritza-guneak, etab.).

Zabalkunderako kanalak

Ekitaldiaren berri emateko formatu desberdinak erabiltzea baloratu behar da, ahalik eta pertsona gehienek informazioa eskuratzeko aukera izan dezaten, betiere xede-publikoa kontuan hartuta.

Ekitaldiari buruzko informazio garrantzitsuenaren artean, ekitaldiaren garapenean eskura izango diren irisgarritasun-baldintzak aipatuko dira.

Elkarturen gidatik ateratako ikonoak →



Nolanahi ere, funtsezkoa da zabaldutako informazioa ulergarria izatea eta erabilitako kanalak irisgarriak izatea.

Argi eta garbi zehaztuko da ekitaldiaren formatua (aurrez aurrekoa, online edo hibridoa), baita izen-ematea egiteko edo informazio zehatzagoa lortzeko erabil daitekeen kanala ere. Komeni da aldez aurretik harremanetarako bideak ematea, interesdunek zalantza zehatzak argitu ahal izan ditzaten.

Ekitaldiaren zabalkundea egiteko aukeren artean: [Marketin- eta komunikazio-irisgarritako gida.](#)

- **Prentsa, irrati edo telebistako iragarkien bidez:**
 - Oro har, hizkera argia, lasaia eta erraza erabiliko da.
 - Telebistako iragarkien kasuan, azpтитuluak eta zeinu-hizkuntzako interpretea izan beharko lituzke.



- Komunikazio-kanal digitalen bidez, esate baterako, web-orrien edo mugikorrerako aplikazioen bidez:
 - Webguneek formatu honetan ezarritako erabilerraztasun-jarraibideak beteko dituzte.




Webgune irisgarriek zer baldintza bete behar dituzten jakiteko, informazio gehiago duten esteka hauek kontsulta daitezke:

- [Web Edukien Erabilerraztasun Jarraibideei buruzko Sarrera \(WACAG\).](#)
- [Nola bete jarraibideak? Gida azkarra.](#)
- [2.0 Web Edukien Erabilerraztasun Jarraibideei buruzko egiaztapen-puntuen taula.](#)
- [Web Erabilerraztasunaren oinarriak: sarrera.](#)
- [UNE 153101:2018 araua, irakurketa errazekoa. Jarraibideak eta gomendioak dokumentuak prestatzeko.](#)

- **Liburuxka fisiko edo digitalen bidez:**

- Hizkuntza argia erabiliko da.
- Liburuxka digitalen kasuan, dokumentuetako irisgarritasun-jarraibideak beteko dira.



Dokumentu irisgarriek zer baldintza bete behar dituzten jakiteko, informazio gehiago duten esteka hauetara jo daiteke:

- [Microsoften irisgarritasun-egiaztatzailea.](#)
- [PDF dokumentuen irisgarritasun-egiaztatzailea.](#)
- [PDF dokumentuei buruzko irisgarritasun-gida.](#)
- [PowerPointeko aurkezpen irisgarriak, desgaitasuna duten pertsonentzat.](#)

Erregistroa edo izen-ematea

Erregistro-prozesua, oro har, kanal digitalen bidez egingo da.

Informazioa erraz aurkitzeko modukoa eta ulargarria izan behar da, eta, gainera, formulario sinpleak erabiliko dira, hizkera argian eta behar-beharrezkoak diren datuak eskatuz. Gainera, formulariora sartzen diren pertsonen ekitaldiari buruzko informazioa irakurri ahal izango dute eta, nahi izanez gero, izena eman.

Gainera, kontuan izan behar da mugikortasun murriztua duten pertsonen ekitaldirako sarrera doan emateko aukera, hala eskatzen badute, ekitaldian baldintza berdinetan parte hartu eta gozatu ahal izan dezaten.

Programak formatu irisgarrian egon behar du, eta deskargatzeko aukera eskaintzen bada, pdf erabilerraza izan behar du, baita irakurketa errazean egokitutako bertsioa ere.



● Etiketa argiak

Erabilera errazten da bete beharreko eremuak behar bezala etiketatuta badaude dagokion edukiaren arabera, hala nola izen osoa idazteko eremuak izena, abizenak... bezalako etiketekin identifikatuz, edota harremanetarako posta elektronikoa edo data adierazteko dagokion etiketak baditu, erabiltzaileak aukeratu behar izanez gero.

Argi geratu behar da zeintzuk diren izen-ematea burutzeko nahitaez bete behar diren eremuak.

● Hautatzeko eremuak

Saioak, otorduak edo irisgarritasun-lehentasunak aukeratu ahal izateko, menu zabalgarriak edo egiaztapen-laukiak erabiltzea komeni da.

● **Irisgarritasunari buruzko eremu espezifikoak**

Irisgarritasunari buruzko edozein premia adierazteko eremuak gehitu beharko dira, testu-eremua edo egiaztapen-lauki batzuk erabiliz, adibidez:

"Irisgarritasun-eskakizunen bat baduzu edo laguntza gehigarriren bat behar baduzu, informazio hori adierazi dezakezu jarraian".

● **Baliozkotze irisgarria**

Eremuen baliozkotzea irisgarria dela egiaztatu behar da pantaila-irakurgailuak erabiltzen dituztenentzat.

● **Kontraste ona eta irakurgarritasuna**

Inprimakiek kolore-kontraste handia izango dute, bereziki etiketen testuek, sarrera-eremuek eta bidalketa-botoiek.

Iturrien tamaina eta lerroarteak nahikoak izango dira irakurketa eta elkarrekintza errazteko.

● **Bidaltzeko botoia irisgarria izatea**

Formularioa bidaltzeko botoiak argia izan behar du, eta esplizituki adieraziko da zertarako den, "izen-ematea bidali" bezalako testuarekin. Testu hori teklatu bidez irakurtzeko modukoa izan behar da, eta behar bezala etiketatuta egon behar du pantaila-irakurgailuek identifikatu dezaten.

● **Izen-ematea berrestea**

Baieztapen argia eta berehalakoa eman behar da formularioa bidali ondoren, izen-ematea ondo egin dela jakinarazteko. Baieztapen-mezu hori orri berean erakutsi daiteke, edo beste orrialde batera eraman dezake, eskerrak emateko.

● **Probak eta berrikuspena**

Formularioa zabaldu aurretik, gomendagarria da probak egitea benetako erabiltzaileekin, desgaitasuna duten pertsonak barne.

● **Eduki moldagarria**

Formularioak diseinu moldagarria izan beharko du (Responsive Design), tamaina desberdineko pantaila eta gailuetan behar bezala funtziona dezan.

Izen-emateak kudeatzeko hainbat tresna daude, eta horietako bakoitzak ezaugarri orokor eta espezifiko desberdinak ditu irisgarritasunari dagokionez. Garrantzitsua da hautatutako tresna probatzea, erabiltzaile guztientzat esperientzia inklusiboa ahalbidetuko duten gutxieneko irisgarritasun-baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Adibidez, honako plataforma hauek eta antzeko beste batzuk erabil daitezke:

- Survey Monkey y accesibilidad.
- React y accesibilidad.
- Microsoft Power Apps.
- Google Forms y accesibilidad.

5.2 Ingurunea



Nola iritsi

Ekitaldia egingo den eraikin edo kokapenera iristea pertsona guztientzat erraza izan dadin, **haren hiri-ingurunea aztertu** behar da.




Arreta berezia jarri behar da honako puntu hauetan, besteak beste:

- **Garraioa irisgarria** izatea. Eskura dauden aukeren eta horien erabilgarritasunaren berri emango da, bai garraio publikoari bai garraio pribatuari dagokionez (sarbideak, geltokiak, aparkalekuak, distantziak...).
- **Aparkalekua gertu** izatea. Ibilgailu pribatuentzako aparkaleku-plazen erabilgarritasunaren eta kokapenaren berri eman beharko da. Gainera, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat **erreserbatutako aparkaleku-plazen** erabilgarritasunari, kopuruari eta kokapenari buruzko informazioa emango da.
- Bertara iristeko **oinezkoentzako ibilbide irisgarriak** daudela egiaztatzea. Funtsezkoa da horien deskribapena izatea eta malda egokia duten, zabalera nahikoa duten, oztoporik ez duten eta seinaleztapen egokia duten aztertzea.

Informazio hori guztia web-orriaren bidez eta gainerako komunikazio-baliabideen bidez (kartelak, adibidez) eman daiteke, pertsonak ekitaldia non egingo den eta bertara nola iris daitezkeen jakin dezaten.

5.3 Nola sartu



Ekitaldia egingo den eraikinak edo lekuak item hauek bete behar ditu, bertara sartzea errazteko:

- Kanpotik **argi eta garbi ezagutu** behar da. Hura identifikatzeko kartelak edo seinaleak erabili behar dira eta, ahal bada, bertan egingo den ekitaldia ere identifikatzea komeni da.
- **Sarbide irisgarriak** kalearen maila berean egon behar du, edo malda eta diseinu egokiko arrapala izan beharko du.
- Sartzeko **ateek behar besteko zabalera** izan behar dute, eta behar bezala seinaleztatuta egon behar dute kristalezkoak badira. Egokiena irekiera automatikoa izatea da (pertsonen detekzioa ziurtatuz, baina baita txakur gidariena eta laguntza-txakurrena ere). Sarrera zailtzen duten ate birakariak saihestea edo desaktibatzea gomendatzen da.
- Barnealdearekin komunikatzeko **txirrina edo interfonoa** badu, pertsona guztiek erabili ahal izateko **altuera egokian** egon beharko du. Kontraste ona izan behar du eta manipulatzeko erraza izan behar du.




5.4 Barneko ibilbideak / Mugikortasuna eraikinean zehar



Eraikinaren barruan mugikortasuna erraztuko duten seinaleak eta irisgarritasun-ezaugarriak izan beharko dira.

Komeni da eraikinaren barruan argibide argiak eta orientazio-piktogramak dituzten kartelak jartzea.

Interesgarria da, halaber, eraikinaren espazioak eta aretoak braillez eta erliebean dituen planoak izatea, pertsona horien mugikortasuna errazteko.



Jarraian, ekitaldira datozenen eta parte-hartzaileen mugimendua errazteko tresna nabarmenak aipatzen dira:

- Informazio-mahaiak altuera bikoitzean egon behar du. Horrela, gurpil-aulkian doazen erabiltzaileak hurbildu ahal izatea errazten da, eta erosoagoa izango da bai gurpil-aulkia erabiltzen dutenentzat bai zutik doazenentzat.
- Gune desberdinetara bideratzeko ibilbideak edo wayfinding sistemak.
- Maketa haptikoak ekitaldi handietan.

- Sarrerako langileak.
- Bestelako zerbitzuen kokapena: komunak, cateringa, kafetegia
Catering-zerbitzuak kontuan izan behar du.
 - Leku irisgarri eta seguru batean kokatzea.
 - Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lekuak seinaleztatuta egotea.
 - Altzariak: barrak, mahai baxuak, atsedenerako eserlekuak.
 - Alergenoen adierazpenak, eta alternatibak ezartzea.
 - Piktogramak edo menuko plateren argazkiak dituzten karta irisgarriak.
- Erreserbatutako eserleku-plazak
- Ekitaldiaren garapenean zehar eraikineko puntu desberdinetara joan ahal izateko ibilbideek zehaztuta egon beharko lukete: informazio-puntua, ekitaldia egingo den aretoa, komunak, kafetegia (halakorik balego) edo erakusmahaiak, ekitaldiak aukera hori badu.
- Laguntzako langileak dauden puntu edo gune bat izatea, informazioa emateko edo behar dutenei dagokiena errazteko (adibidez, zeinu-hizkuntzako interpretea, ekitaldiari buruzko dokumentazioa irakurketa errazean, gor-itsuentzako gidak, laguntza-zerbitzua, etab.). Gomendio honi lotutako jardunbide egoki bat "Puntu Laranja" delakoa da, eta San Cristobal de la Lagunako Udalak puntu hori erabiltzen du bere ekitaldietan, irisgarriagoak eta inklusiboagoak izan daitezen).



Barrutiak eta aretoak

Ekitaldiak irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa izan behar ditu.

Horrek esan nahi du oztoporik gabea izateaz gain, **arrapalak eta igogailuak** izan behar dituela mugikortasuna errazteko, baina, horrez gain, **begizta magnetikoak** eta **zeinu-hizkuntzako interpretea** (ZHI) ere egon behar direla, entzumen-desgaitasuna edo gorreria duten pertsonen komunikazioa errazteko. Gainera, laguntzako langileak izatea ere komeni da ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak orientatzeko, eta, aurreko atalean esan bezala, QR kodeak ere izan behar dira, pertsona guztiei informazioa emateko.



Halaber, kartelak, gunearen mapa eta braillez egindako beste baliabide batzuk sartzea lagungarria izan daiteke itsuak eraikinaren barrutik mugitzea errazteko.

Irisgarritasun kognitiboari dagokionez, erabilitako **seinaleztapenak argia eta intuitiboa** izan behar du, eta piktogramak erabili behar dira adierazten denaren ulermena errazteko, eta eskaintzen den informazioa, testu bidezkoa bada, irakurketa errazean ere eman behar da.



Ekitaldia egingo den aretoan honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Korridoreek behar besteko zabalera izatea, gurgil-aulkian dauden pertsonen erabili ahal izateko.
- Eszenatokira edo atrilera igotzea irisgarria izatea, arrapalen bidez eta behar adinako zabalarekin pertsona guztiak erraztasunez mugi daitezen.
- Eserlekuen edo harmailen eremuan mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako guneak izatea. Ez dute ebakuazio-eremuetan egon behar. Eta lehenengo lerroak desgaitasun sentsoziala duten pertsonentzat gorde behar dira.
- Begizta magnetikoak izatea.
- Ekitaldiaren azpigituluak bistaratzeko pantailak izatea.
- Zeinu-hizkuntzako interpretea izatea.
- Pantailatan erakusten ari denaren audiodeskribapena izatea.
- Laguntzako langileak izateko aukera, norbaitek behar izatekotan.
- Harmailak badaude, horiek kontrastea izan behar dute, batzuk besteetatik bereizteko.
- Gela ondo argiztatua egotea eta akustika ona izatea.
- Ekitaldian gertatzen denari buruzko informazioa irakurketa errazean ematea; adibidez, hizlari baten hitzaldiaren laburpena irakurketa errazean.
Adibidea: [INICO kongresua](#).

5.5 Ekitaldiaren garapena



Parte-hartzaileen harrera

Eraikinerara sartu ondoren, garrantzitsua da erregistratutako pertsonen ekitaldira sartzeko igaro behar duten **informazio-puntua erraz aurkitzeko moduan** egotea.



Eraikinaren barruko espazioek **informazio-seinale argiak** izan behar dituzte, ez bakarrik informazio-puntuari buruzkoak, baita bertan dauden gela eta zerbitzuei buruzkoak ere.

Seinaleztapenak argia eta intuitiboa izan behar du. Pantaila digitalen bidez erakuts daiteke, baita direktorioen edo mapa analogikoen bidez ere.

Elementu horiek, digitalak edo konbentzionalak izan, ekitaldira joaten diren pertsonen orientatzen lagundu behar diete.

Seinaleztapenaren ezaugarriak:

- Sarreratik ekitaldia egingo den lekura ondo identifikatuta egotea.
- Ekitaldiaren sarreraren ondoan jartzea.
- Ukimen-ikusizko zoladuraren bidez seinaleztatuta egotea.
- Diseinu egokia izatea, erabilera errazteko (altuera eta zabalera, inklinazioa, kontrastea, etab.).
- Elementuak oztopo ez izatea, estropezu eta talka egiteko arriskua saihesteko.
- Ulermena errazteko, seinaleztapen-piktograma estandarizatuak erabili behar dira. [Erabateko inklusioko piktograma-bankua](#).

Informazio-puntua erakusmahai modukoa bada, honako hauek izan behar ditu:

- Beheratutako espazioa, altuera txikiko pertsonen edo gurpil-aulkien erabiltzaileek errazago erabil dezaten.
- Diseinu eta dimentsio egokiak.
- Ikusteko moduko seinaleak.
- Begizta magnetikoa, behar bezala seinaleztatuta, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen hobeto entzun ahal izateko.
- Sarbidearekin konektatuta egotea ukimen-ikusizko zoladuraren bidez, non eta bere kokapenagatik beharrezkoa ez bada, adibidez, atetik oso gertu badago.

Langile guztiek, bai segurtasunekoek, bai harrerako langileek eta ekitaldian informatzaile edo orientatzaile gisa jardungo dutenek, **aldez aurreko prestakuntza** izan beharko lukete desgaitasuna duten pertsonen arretaren inguruan. Horrela, haien arreta eta komunikazioa arinagoa eta eraginkorragoa izango da.

Emandako **informazioak**, adibidez, liburuxkak edo ekitaldiaren programa ematen badira, **ulergarria izan behar du edukiari eta formari** dagokienez, eta hizkuntza argian hitz egin behar da, ahoskera onarekin eta tonu egokian. Era berean, **komunikazioa errazteko beharrezko laguntzak izan behar dira**, hala nola, zeinu-hizkuntzako interpretea entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat eta zeinatzailentzat.

Informazioa paperean ematen bada, formatu alternatiboak ere izan behar ditu, hala nola pdf digital irisgarria edo irakurketa errazeko bertsioa. Konponbide horiek, askotan, liburuxkan bertan sartzen dira, QR kodeen bidez, dokumentazio irisgarri hori eskuratu ahal izateko.



Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta egokiari dagokionez, funtsezkoa da arreta emateko garaian pertsonari berari zuzentzea, ez haren desgaitasun-egoerari.

Eta beti galdetu behar zaio bere premiei buruz, komunikazioa modu eraginkorrean egin ahal izateko, auresuposizioetatik edo topikoetatik urrun.

Eskura dauden zerbitzuak

- Kafetegia edo catering-zerbitzua egon daiteke, eraikinaren barruko gune jakin batean.
- Armairuak edo kontsignak, parte-hartzaileen motxilak edo poltsak uzteko.
- Arropategia, berokiak, jakak eta abar gordetzeko.
- Laguntza-produktuak dituen stand bat jartzeko aukera, norbaitek behar izanez gero.
- Ekitaldi-aretoa.
- Erakustokiak (hainbat erakundek edo enpresek beren zerbitzuak edo produktuak bertaratutako pertsonari aurkezten dizkieten azoka edo beste ekitaldi bat bada).
- Balizko karpak edo terrazak, aire zabaleko espazio bat ere baldin badago.
- Komunak.
- Atsedenlekuak.
- Hondakinak kudeatzeko gunea. Paperontzi edo zaborrontzi irisgarriak.

Ekitaldiak irisgarritasun fisikoa, sentsoriala eta kognitiboa izan behar ditu.

Horrek esan nahi du oztoporik gabea izateaz gain, **arrapalak eta igogailuak** izan behar dituela mugikortasuna errazteko, baina, horrez gain, **begizta magnetikoak** eta **zeinu-hizkuntzako interpretea** (ZHI) ere egon behar direla, entzumen-desgaitasuna edo gorreria duten pertsonen komunikazioa errazteko. Gainera, **laguntzako langileak** izatea ere komeni da ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak orientatzeko, eta, aurreko atalean esan bezala, QR kodeak ere izan behar dira, pertsona guztiei informazioa emateko.

Halaber, kartelak, gunearen mapa eta braillez egindako beste baliabide batzuk sartzea lagungarria izan daitekeitsuak eraikinaren barrutik mugitzea errazteko.

Irisgarritasun kognitiboari dagokionez, erabilitako **seinaleztapenak argia eta intuitiboa** izan behar du, eta piktogramak erabili behar dira adierazten denaren ulermena errazteko, eta eskaintzen den informazioa, testu bidezkoa bada, irakurketa errazean ere eman behar da.


Ekitaldia egingo den aretoan honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Korridoreek behar besteko zabalera izatea, gurpil-aulkian dauden pertsonek erabili ahal izateko.
- Eszenatokira edo atrilera igotzea irisgarria izatea, arrapalen bidez eta behar adinako zabalerarekin pertsona guztiak erraztasunez mugi daitezen.
- Eserlekuen edo harmailen eremuan mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako guneak izatea. Ez dute ebakuazio-eremuetan egon behar. Eta lehenengo lerroak desgaitasun sentsoziala duten pertsonentzat gorde behar dira.
- Begizta magnetikoak izatea.
- Ekitaldiaren azpigituluak bistaratzeko pantailak izatea.
- Zeinu-hizkuntzako interpretea izatea.
- Pantailetan erakusten ari denaren audiodeskribapena izatea.
- Laguntzako langileak izateko aukera, norbaitek behar izatekotan.
- Harmailak badaude, horiek kontrastea izan behar dute, batzuk besteetatik bereizteko.
- Gela ondo argiztatua egotea eta akustika ona izatea.



Irisgarritasun-zerbitzu osagarriak ekitaldia egin bitartean

Elementuen berezko irisgarritasun-neurriez gain, horien gabeziak estaltzeko eta emandako informazioaren fidagarritasun handiagoa ziurtatzeko, profesionalen zerbitzuak kontrata daitezke, hala nola **zeinu-hizkuntzako interpreteak eta estenotipitzaileak**, horretarako beharrezko baliabideak badaude.



Ekitaldian zehar bideoak erreproduzituko badira, gomendagarria izango litzateke, halaber, bideo horiek audiodeskribapena izatea edo zuzenean egitea, gertatzen ari dena kontatu eta deskribatzeko.

Gainera, testu bidez automatikoki transkribatzen duten bestelako tresnak ere badaude, [ListenAll](#) bezalako aplikazioak esaterako, ekitaldian zehar komunikazioa laguntzeko balio dutenak. ListenAll ahotsa ezagutu eta testura transkribatzeko aplikazio bat da.

[Svisual Fundazioak](#) eskaintzen duen online bidezko bideo-interpretazio zerbitzua ere erabilgarria da.

Jarraian, komunikazioari laguntzeko profil hauetan kontuan hartu beharreko beste zerbitzu eta ezaugarri batzuk aipatzen dira:

- ZHI egongo den eremua behar bezala argizatuta egotea.
- Beharrezko interprete kopurua kontrolatzea:
 - Ekitaldiaren iraupenaren arabera aldatzen da
 - Behar diren atsedenaldiak kontuan hartzea.
- Interpreteentzako mikrofono gehigarriak jartzea.
- Aldez aurretik programaren eta, halakorik badago, liburuxken kopiak ematea, zeinu-hizkuntzako interpreteek aurretik hitz egingo denaren berri izan dezaten.
- Eserlekuak erreserbatzea.

Laguntza

Ekitaldia antolatzean, bertaratutako pertsona guztien beharrak asetzen saiatu behar da.

Aldez aurretik, izena ematean dagozkion irisgarritasun-premia edo -eskakizun guztiak jasoko dira.

Gainera, funtsezkoa da ekitaldian arituko diren langileei desgaitasuna duten pertsonen arretari buruzko prestakuntza ematea.

Desgaitasun ezberdinak dituzten pertsonen eskakizunak

Mugikortasun urriko pertsonentzat:

- Lekua erreserbatzea, jarduera ondo ikusi ahal izateko. Jardueraren arabera, espazio hori lehenengo ilaretan edo altuenetan egon daiteke.
- Laguntzaileentzako lekua aurreikustea.

Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat:

- Lehen lerroan lekua gordetzea, aplikatzen den komunikazio-sistema alternatiboa behar bezala jarraitu ahal izateko eta jardueraren ikuspegi ona izateko.
- Maiztasun modulatuak erabiltzea.
- Begizta magnetikoa jartzea.
- Azpigituluak.
- Zer eta nola komunikatuko den jakitea.

Adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzat:

- Irakurketa errazeko informazioa sartzea.
- Hizkera erraza, zehatza eta argia erabiltzea.
- Pertsona bakoitzaren erritmoa errespetatzea.

Aurkeztutako eta azaldutako dokumentazioa

Parte-hartzaileei aurkezpen irisgarriak egiteko argibideak ematea.

Gainera, aurkeztutako dokumentuak irisgarriak izango dira, eta edukia ulergarria izango da. Hau da, hizkuntza argian idatzita egon behar du (Europako Batzordeak argitaratutako ["Nola idatzi argi eta garbi"](#) gida).



Dokumentuak irisgarriak izateko jarraibideei dagokienez, esteka hauek kontsulta daitezke, dokumentu-formatuaren arabera.

[Microsoften erabilerraztasun-egiaztagailuak](#) hainbat dokumenturen erabilerraztasuna identifikatzen du, hala nola posta elektronikoena, Word fitxategiena, PPTena, etab.

Eskuarki, hitzaldi eta ekitaldietako aurkezpenak PowerPoint formatuetan egiten dira, mezuak argiagoak eta ulerterrazagoak izan daitezen.

Kasu horretan, ppt dokumentuak egiteko informazio gehiago kontsulta daiteke esteka honetan: [PowerPointeko aurkezpen irisgarriak, desgaitasuna duten pertsonentzat](#).

Hizlariantzako argibideak

Komunikazio-jarraibideei dagokienez, honako hauek hartu behar dira kontuan:

1. Azkarregi edo motelegi ez hitz egitea, azpituluek mezua ondo hartzeko eta ezpainak irakurriz ere ulertzeko.

2. Ondo eraikitako diskurtsoa izatea, informazio argia eta zehatza ematea, egokia ez denean hizkera oso teknikoa saihestuz eta, emanaz gero, ahalik eta modu errazenean azalduz. Proposamen bat izan daiteke aldez aurretik glosario bat sortzea ekitaldian ager daitezkeen eta ulertzeko zailak izan daitezkeen termino eta hitzekin. Informazio hori web orrian jar daiteke, bertaratuko direnek ekitaldiaren aurretik kontsultatu ahal izateko eta ekitaldian bertan eskura ematea edo ekitaldian zehar dokumentazio osagarri gisa.
3. Aurkezpenetan irudiak erabiltzen direnean horiek deskribatzea, informaziorik ematen ez duten dekoraziozko irudiak bereiztuz diskurtsoaren testuinguruan ezinbestekoak direnekiko, hala nola grafikoak. Pantailan agertzen den edozein testu bezala. Aurkezpenak lagungarria izan behar du, baina informazio guztia helarazi behar du, jende guztiak jaso dezan. Era berean, irudi oso metaforikoak saihestu behar dira, edo, kasu horretan, horien azalpena indartu behar da. Kontuan izan arreta non jarri nahi dugun, hitz egiten duen pertsonaren hitzetan edo irudian erakusten den informazioan. Arreta leku askotan aldi berean mantentzeak informazioa ondo ulertzea galarazten du.
4. Erabilgarria izan daiteke aurkezpena aldez aurretik bertaratutakoekin partekatzea, bai eta aurkezpena modu irisgarrian egin dela ziurtatzea ere.
5. Aurkezpenak oso luzeak ez izatea eta gai bakoitzaren ondoren laburpen txikiak sartzea.
6. Ekitaldira bertaratutakoekiko elkarrekintza sustatzea, galderak egin ahal izan ditzaten eta hitzaldiaren informazioa behar bezala ulertu dutela ziurtatzeko. Ildo horretan, programaren barruan egon daitezkeen elkarrekintza-guneak sortzea gomendatzen da, bertaratuek galderak aldez aurretik prestatu ahal izan ditzaten. Era berean, garrantzitsua da erantzun-denborak uztea eta errespetatzea.
7. Maila teknikoan, kameraren kalitatea, mikrofona eta argiztapena hartu behar dira kontuan.



Batez ere, naturaltasuna eta aldez aurretiko jarrera dira garrantzitsuena bertaratuei ahalik eta ondoen arreta emateko eta maila teknikoan edo beste edozein arrazoirengatik ager daitezkeen irisgarritasun-gabeziak artatzeko.

Hitzaldietan tresna digitalak erabiltzeko buruzko argibideak

Eskura dauden neurriak:


- Kanpoko zerbitzuen azpigituluak integratzea.
- Azpigitulu automatikoa.
- Parte-hartzaileen kamera ainguratzeko eta finkatzeko aukera, norberaren ikuspegian zein ekitaldiaren ikuspegi orokorrean, zeinu-hizkuntzako interpreteak ekitaldian zehar ikusgai egon daitezzen.
- Pantaila-irakurgailuaren bidez funtzionalitate guztiekin elkarreragiteko aukera.
- Transkripzioa eta azpigitulu deskargagarriak.

Esteka hauetan, gehien erabiltzen diren plataformen irisgarritasun-neurriak kontsulta daitezke:

- Zoomen irisgarritasuna.
- Teamsen irisgarritasuna.
- Google Meeten irisgarritasuna.



Aurkibidera itzuli



- **Irisgarritasun unibertsala.** Irisgarritasun unibertsalari esker, inguruneak, zerbitzuak eta produktuak pertsona guztiek oztoporik gabe erabili ahal izatea ahalbidetzen da.

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duena), irisgarritasuna honela definitzen da:

"Inguruneek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete behar duten baldintza, baita objektuek edo tresnek, erremintek eta gailuek ere, pertsona guztiek ulertu, erabili eta gozatu ahal izateko, segurtasun-eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoenean eta naturalenean."

- **Audiodeskribapena.** Komunikazioari laguntzeko sistema bat da, eta ikus-entzunezko materialetan soinu-informazioa tartekatzean datza. Horrela, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonak ikusten duen baten antzeko pertzepzioa izan dezakete. Irudiaren testuinguruari buruzko informazio objektiboa eta argia emango du, baita ekintza non garatzen den, nor agertzen den, inguruan zer ikusten den eta abar ere.

UNE 153020 arauak arautzen du.

- **Audiogidak/Zeinu-gidak.** Aurrez grabatutako informazioa ematen duten eta une bakoitzean entzun nahi den informazioa eskuz edo automatikoki hautatzeko aukera ematen duten banakako gailu elektronikoak dira.

Audiogida batek informazioa soinu-formatuan itzultzen du; zeinu-gida batek, berriz, informazioa bideoan ematen du, zeinu-hizkuntzan eta azpitituluekin.

- **Begizta magnetikoa edo indukziokoa.** Audio-seinale bat eremu magnetiko bihurtzen duen soinu-sistema bat da, T posizioa duten audifonoak edo kokleako inplanteak dituzten pertsonak soinuak argiago eta garbiago entzun ditzaten, erreberberaziorik eta giro-zaratarik gabe.
- **Dokumentu irisgarria.** Formatu elektronikoko fitxategi bat da, eta haren atributuek ahalik eta pertsona gehienek irakurtzea, elkarreragitea eta ulertzea errazten dutela eta pantaila-irakurleek irakur ditzaketela kontrolatzen du, horregatik funtsezko informazioa galdu gabe.

Dokumentu elektroniko irisgarriak sortzeko orduan, edizio-programek lehendik dagoen testu baten ebaluazioa egiteko aukera ematen dute.

- **Zeinu-hizkuntzaren interpretazioa.** Ahozko mezuak denbora errealean zeinu-hizkuntzara eta alderantziz interpretatzean eta itzultzean datza, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen arteko komunikazioa errazteko.

Interpretearen irudia aurrez aurrekoa edo gailu pertsonalen bidez urrunetik konektatzeko aukera ematen duten sistemen bidezkoa izan daiteke. Adibidez, Dualia edo SVisual zerbitzuak, besteak beste.

- **Hizkuntza argia.** Testu-idazketari aplikatutako estilo bat da, idazkera sinplea, argia eta erraza erabiltzen duena, transmititu nahi den informazioa erraz ulertzen laguntzen duena, eta erabiltzaile mota guztientzat erabilgarria dena.

Aplikazio informatiko batzuek testuak idazten edo dauden beste testu batzuk gainbegiratzen laguntzen dute, hizkuntza argira egokitzeko; adibidez, arText sistema.

- **Irakurketa erraza.** Idatzizko edukiak egokitzeko jarraibideak eta gomendioak biltzen dituen metodoa da, irakurmenean zailtasunak dituzten pertsonak errazago ulertzen dituzten.

UNE 153101 arauak arautzen du.

- **Azpititulu deskribatzailea** edo gorrentzako azpitituluak (SPS). Komunikazioari laguntzeko sistema bat da, ikus-entzunezko materialen soinu-informazioa testu bihurtzen duena, entzumen-desgaitasuna duten pertsonak informazio osoa ulertzen dezaten. Parte-hartzaileen izenak, elkarriketak, abestiak, interpretazio-ñabardurak, keinuak, ingurune soinu garrantzitsuak eta abar adieraziko ditu.

UNE 153010 arauak arautzen du.

- **Komunikazio-sistema handigarriak eta ordezkokoak (KSHO).**


Adierazpide horien helburua, hizketaz gain, komunikazioa areagotzea eta komunikatzeko eta mintzatzeko zailtasunak konpentsatzea da. Handigarriak izango dira ahozko komunikazioa osatzen dutenak eta ordezkokoak ahozko komunikazioa ordeztzen dutenak.

Bi motatakoak izan daitezke: laguntzarik gabeko sistemak, hala nola zeinu-hizkuntza edo eskuzko zeinuen edo keinuen erabilera, eta lagundutako sistemak, euskarri fisikoen erabilera barne hartzen dutenak, hala nola piktogramak, argazkiak, ideogramak, etab.



7

Ekitaldi irisgarriak egiteko dekalogo



Jarraian, ekitaldi irisgarri bat antolatzeko ezinbestekoak diren 10 puntu nabarmen jasotzen dira:

1. **Kokapen egokia aukeratzea**, mugikortasun urriko pertsonentzat irisgarria dena eta bertara iristeko garraio-aukera eta ibilbide irisgarriak dituen, eta dagozkion zerbitzu egokituak izatea.



2. Ekitaldiaren **aldez aurretiko komunikazioa** egitea, informazio argia eta eskuragarria emanez, hainbat formatu erabiliz eta izena emateko formatu irisgarriarekin, bertaratuek irisgarritasun-premiak adierazteko aukera izan dezaten.

3. **Plataforma irisgarriak** erabiltzea, pantaila-irakurgailuak, denbora errealeko azp tituluak eta teklatu bidezko nabigazio-aukerak onartzen dituztenak.



4. Aurkezpenetan denbora errealeko **azp tituluak** jartzea, **eta zeinu-hizkuntzako interpreteak eta begizta magnetikoa** izatea.

5. Ikusizko edukirik badago, **audiodeskribapena** izatea edo aurkezleek eduki garrantzitsuenaren **ahozko deskribapenak** egitea.



6. Dokumentuak eta aurkezpenak **formatu irisgarrietan** eskuragarri daudela ziurtatzea, hala nola pdf etiketatuen bidez edo pantaila-irakurgailuekin bateragarriak diren dokumentuetan. Era berean, beharrezkoa denean, braillez inprimatutako materialak eskaintzea.

7. **Eserleku irisgarriak** erreserbatzea kokapen estrategikoetan, irteeretatik gertu, eta ikuspegi egokia edo soinua behar bezala hautematen dela bermatzea. Gainera, espazioen **argiztapenak** egokia izan behar du.



8. **Seinaleztapen argia** eta kontraste handikoa bermatzea, gauzak errazago aurkitzeko eta ulertzeko, eta **prestatutako laguntzaileak** izatea parte-hartzaileei beren beharretan lagundu ahal izateko.


9. **Gune lasaiak** eta atseden-guneak prestatzea, eta ekitaldian zehar **etenaldiak** programatzea.



10. Ekitaldiko **langileek** dagokion prestakuntza izatea desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko, eta errespetuzko eta ulermenezko jarrera inklusiboa sustatzea.



Aurkibidera itzuli



Jarraian, pertsona guztientzat irisgarriak diren ekitaldiak antolatzeko elementu egokiak eta beharrezkoak garatzen eta inplementatzen ari diren egiaztatzen laguntzen duten ekintza eta adierazle nabarmenenak jasotzen dira.

Ekitaldi irisgarri bat egiteko jarraibide orokorrak

Ekintzak	Adierazleak
Ekitaldiaren kokalekua hautatzea	- Eraikinaren irisgarritasuna: - Sartzeko arrapalak Bai Ez - Ate automatikoak Bai Ez - Ingurunea: - MUP errerserbatutako plazak Bai Ez - Hurbileko garraio irisgarriak Bai Ez - Oiezkoentzako ibilbide irisgarriak egotea Bai Ez
Ekitaldirako sarbidea	- Eraikina ondo seinaleztatua dago Bai Ez - Sarbidea arrapalarekin edo kalean bertan Bai Ez - Zabalera egokia duten ateak Bai Ez - Automatikoki irekitzen diren ateak Bai Ez - Altuera egokiko txirrinak, kontraste onekoak eta erraz manipulatzekoak Bai Ez - Sarbiderako arreta- eta informazio-langileak Bai Ez


Ekintzak	Adierazleak
Ekitaldiaren berri ematea	● Hainbat kanalen bidez zabaltzea: – Web-orri irisgarria Bai Ez – QR duten kartelak, pdf irisgarriarekin Bai Ez – Prentsako, irratiko edo telebistako iragarkiak: lokuzio argia, hizkuntza argia, ILSE duten iragarkiak Bai Ez ● Zabaltze beharrekoko edukia: – Ekitaldiak izango dituen irisgarritasun-baldintzei buruzko informazioa ematea Bai Ez – Hizkuntza argiko informazio ulergarria Bai Ez – Edukia irakurketa errazera egokitzea Bai Ez
Gertaeraren erregistroa	● Erraz aurki daitezkeen informazioa Bai Ez ● Eduki ulergarria Bai Ez ● Inprimaki irisgarria, izena emateko, eta deskargatzeko bada, pdf formatuan Bai Ez ● Irakurketa errazera egokitzea Bai Ez ● Ekitaldiaren formatua behar bezala zehaztu Bai Ez ● Kontsultak ebazteko harremanetarako bideak eskaintzea Bai Ez ● Bertaratuen eta parte-hartzaileen irisgarritasun-eskakizunei buruzko kontsulta egitea Bai Ez

Ekintzak	Adierazleak
Ekitaldian zehar emandako informazioa	• Hizkuntza argiko informazioa Bai Ez • Eduki garrantzitsuenak FLra egokitzea Bai Ez • Informazioa paperean ematen bada, dokumentu digital irisgarriak ere eskaini behar dira, behar diren formatu alternatiboetan Bai Ez • Azpigituluak ematea Bai Ez • Interpretatu zeinu-mintzairan Bai Ez
Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko prestaturiko arretako langileak	• Desgaitasuna duten pertsonen arreta eta tratua egokia emateko prestakuntza Bai Ez
Mugikortasuna eraikinean zehar	• Seinale irisgarriak Bai Ez • Braillez egindako planoak eta eremu desberdinen erliebea Bai Ez • Informazio-mostradorea altuera bikoitzean Bai Ez • Eraikinetik mugitzeko bideratze-zerrendak Bai Ez • Irisgarritasun-eskakizunak dituzten pertsonentzako arreta- eta laguntza-puntu bat izatea Bai Ez • Erreserbatutako eserlekuak Bai Ez • Arrapalak eta igogailuak Bai Ez • Zabalera egokia duten korridoreak Bai Ez • Komun irisgarriak Bai Ez

Ekintzak	Adierazleak
Hitzaldi gela	● Begizta magnetikoa Bai Ez ● EILSE Bai Ez ● Laguntzaileak Bai Ez ● Piktograma bidezko seinaleak Bai Ez ● Zabalera egokia duten korridoreak Bai Ez ● Agertoki irisgarria Bai Ez ● Besaulki erreserbatuak Bai Ez ● Azpigituluak Bai Ez ● Audiodeskribapena Bai Ez ● Argiztapen ona Bai Ez ● Akustika ona Bai Ez ● Ekitaldian zehar gertatzen denari buruzko informazioa irakurketa errazean ematea Bai Ez



Aurkibidera itzuli



Epigrafe honetan, ekitaldi irisgarri bat antolatzeko lagungarriak diren hainbat dokumentu, gida eta argitalpen biltzen dira:

- [Kultura-ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko protokoloa.](#) Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea, Elkartu.
- [Ekitaldi irisgarriak antolatzea.](#) Desgaitasun fisikoa duten Pertsonen Estatuko Ordezkaritza Plataformak (PREDIF) Valentziako Udalako egindako eskuliburua. Visit Valencia.
- [Ekitaldi irisgarriak.](#) ONCE Fundazioa, Irisgarritasun Kognitiboaren Espainiako Zentroa eta Azpitu-luen eta Audiodeskribapenaren Espainiako Zentroa. Desgaitasunari buruzko Errege Patronatua.
- [Ekitaldi irisgarri eta inklusiboen gida.](#) Monterreyko Teknologikoa, Tecmilenio Unibertsitatea eta Giza Duintasuna Aitortzeko Zentroa.
- [Ekitaldietako irisgarritasun unibertsalari buruzko gida.](#) Zaragoza Congressos.
- [Zure ekitaldia irisgarri egiteko gida.](#) Madrilgo Unibertsitate Autonomoak Ekintza Solidarioko eta Lankidetzako Bulegoaren barruan duen Desgaitasunari arreta emateko arloa.
- [Turismo-ekitaldi irisgarriak eta inklusiboak egiteko oinarrizko gida.](#) Nafarroako Gobernua, "Navarra Rural" helmugen arteko kohesio ekintzen planari buruzko Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planaren esparruan.
- [Nola antolatu kultura-ekitaldi irisgarriak antzoki eta museoetan?](#) Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Estatuko Ordezkaritza Plataforma (PREDIF), Desgaitasunari buruzko Errege Patronatuaren laguntzarekin.
- Arreta-bideen irisgarritasunari buruzko jarduera-protokoloa. Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua (ISEK). [Euskadiko Irisgarritasunaren Behatokia sarbidea.](#)
- ASPACE [mugimenduaren ekitaldi inklusiboak diseinatzeko eskuliburua.](#)
- [Nola eman erraz ulertzeko moduko hitzaldia](#) (Plena Inclusión).



Aurkibidera itzuli

